

2012-01-19an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 19-01-2012

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Leire Urcelay Letona  
Jose Angel Petralanda Gil  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Iker Akizu Olabe  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko urtarrilaren 19an, arratsaldeko seiak eta erditan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Itziar Martínez andrea ez da etorri.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día diecinueve de enero de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste la Sra. Itziar Martínez.

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2011-12-15 eta 2011-12-27

Aktak onartzeko puntu honetan, ondorengo irizpideak onartu dira:

- Merino jaunak horrela eskatuta, aho batez erabaki da mozioak osorik jasotzea aktan, ez bakarrik xedapen zatia.
- Urrutia jaunak berariaz eskatuta, bere esanak hizkuntz bietan jasotzea eta ez bakarrik kasu bakoitzean erabilitakoan.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2.1.- Hartutako erabakien gaineko informazioa.

2012ko urtarrilaren 13ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

2.2.- Hainbat gairi buruzko informazioa eman du.

- ESKOHITZA: Informazio bilerak. ESKOHITZA parte hartze prozesu osoaren emaitzak ezagutzera emateko, bilera bi egingo dira urtarrilaren 26an eta 31n. Alkateak bertaratutako guztiak eta herritarrek gonbidatu ditu bilera horietara.

## **3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hau sartzea:

- *UDALAREN ORDEZKARIA ETA HORREN ORDEZKOIA IZENDATZEA CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIAN-GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXAREN BATZAR OROKORRERAKO.*

## **4.- 2012KO AURREKONTUA ONARTZEA. (EGONKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA)**

Hazienda batzorde informatzaileak, 2012ko urtarrilaren 11n, Alkateak egindako aurrekontu proiektuaren aldeko diktamena egin zuen.

Aurrekontuak egiterakoan kontuan izandako irizpideak azaldu ditu Alkateak, eta baita aurrekontuak kapituluka dituen aurreikuspenak ere.

Bertaratutako guztiak jakinaren gainean izan ondoren, udal taldetako bozeramaleek hartu dute hitza.

Horiek esan beharrekoak esan ondoren, Hazienda batzordeak diktaminatutako aurrekontuetan bi aldaketa sartzea proposatu du Alkateak, hain zuzen ere, honako hauek:

- 500 eurotan handitzea kulturako diru laguntzen partida eta kopuru berean murriztea kultur ekintzena.
- “Babesik gabeko egoerak” gaineko partida IV kapitulutik II kapitulura pasatzea.

Aipatutako bi aldaketa horiekin bototara jarri da proposamena.

2 boto aurka (Urrutia jauna eta Cantero jauna), abstentzio 1 (Merino jauna) eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideen aldeko botoak jasota, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Udaletxeko Aurrekontu Orokorra osatzen duten aurrekontu guztien eta bakoitzaren gainean Idazkaritza-kontuhartzailetzak egindako txostenaren eta bere edukiaren jakitun gelditzen dira, eta zehazki, horietako bakoitzean aurrekontu-egonkortasun helburua betetzeari, eta hala bada, ez betetzeari buruz, Aurrekontu-egonkortasunaren Lege Orokorreko 19 artikuluko 1 eta 3 aitaletan aurreikusitakoaren arabera.

**Bigarrena:** Hasiera batean onartzea honako kopuru honetako udal aurrekontua: 5.053.065,78 €

**Hirugarrena:** Hasiera batean onartzea honako kopuru honetako Telesko-Udal Telebista fundazioaren aurrekontua: 74.896,62 €

**Laugarrena:** 2012ko aurrekontua exekutatzeko oinarriak eta 2012ko aurrekontu orokorra osatzen duen gainontzeko dokumentazioa hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bategineko 445. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Bosgarrena.-** Onarprena behin betikotzat jotzea inolako erreklamaziorik ez balego, erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko 15 egunez erabakia jendaurrean egon ondoren.

Urrutia jaunaren boto azalpena (2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran horrela egitea eskatu zuelako egiten da):

Guk aurka bozkatuko dugu, eta horretarako arrazoiak emango ditut. Alderdi formaletatik hasiko naiz. Lehenengo batzordean zenbakiak aurkezu ziren, eta koadratu gabe aurkezu ere, eta gero, joan zen astean, hona ekarri behar zena aurkezu zen. Batzordeei hainbeste garrantzi ematen zaion udal batean, egiten dudan gogoeta da zertarako balio duen batzordera joatea, batez ere, batzordea informatzailea izanik informazioa edozein modutara ematen baldin bada. Hemen, nik edo Juan Luisek, edo Jose Luisek kontrako zerbait esaten dugunean, esaten zaigun lehenengo gauza da ez garela batzordeetara joaten eta ez dakit zer... Baina, horrela lan egiteko ez dakit zein punturaino garrantzia duen batzordetara joatea, horiek informatzaileak izanda horrelako informazioa ematen baldin bada. Are gehiago, zalantza dut informazioa horrela ematea legezkoa den edo ez, eta areago, informazioa posta elektronikoz eta bi egun lehenago ematen zaigunean. Eta gero “ahoa betetzen” zaizuenean parte-hartze eta gardentasun bezalako berbakin. Bestalde, badirudi hau ez dela benetako aurrekontua, eta batez ere, batzorde informatzaile batean berariaz aitortu delako zenbait partidan -eta adibide bezala jarriko dut Udalak Goienari 30.000 euroko ekarpena egiteko duen konpromisoa- esaten da gero jarriko dela, orain arazoak daudelako aurrekontua koadratzeko. Horregatik, aurrekontua hobeto lantzeko eskatuko nuke nik, 2011ko benetako aurrekontua kontuan hartuta. Ez dakit zer arazo dagoen otsailera edo martxora atzeratzeko, zeren sozialistei eta ezker batuari hemen emandako erantzuna izan da martxoan zenbait aldaketa esanguratsu izango zirela. Ba, martxora arte itxaron dezakegu aurrekontuak

onartzeko. Beharbada, horrela, gutakoren baten iritzia alda daiteke, eta errazago, egingo direla hemen esan diren ideia eta proiektuak gauzatzeko aukera ikusiz gero. Eta gero, aurrekontuei dagokienez, baditut sei bat komentario egiteko: zergatik murritzten da % 34,76 kirolegiko energia hornidura gastua? Zergatik murritzten da % 15,69 estolderiarengatiko sarrerak? Zergatik egiten da gauza bera, hau da, jaitsi, ur horniduragatiko sarrerak? Guztira 82.412 euro dira, eta horri gehitzen baldin badiogu kontsortzioak kobrau behar diguna, hau da, 48.878 euro, 111.000 euro inguru egiten dute. Zalantzak ditut kirolegian, diru sarreretan, kontuan hartu ote diren lehenengo hiruhilekotik aurrera ez direla etorriko aretxabaletarrak. Ez gaude ados, eta harritzen gaitu, diru laguntzarik ez kudeatzea 21 Agendarako. Diru gutxi edo asko izango da, baina, esanguratsua da jakiteko zeintzuk diren lehentasunak. Eta antzekoa esango genuke Deba Garaiari buruz. Ez al da aurkeztu behar proiekturik diru sarrerak izateko? 9.000 euroko gastu finkoa dugu eta guk proposatuko genuke hori lantzea eta animatuko genizueke egoera epaitzerakoan gobernu honetan egongo bagina beste batzuei epaituko litzaiguken bezala epaitzera. Gastuei dagokienez, kontuan izan behar da I. kapitulukoa sarreren % 31 direla. Uste dut horrek gogoeta bat eskatzen duela. Pertsonal batzordean esaten zaigu aparteko orduak desagertuaz joan behar direla, eta hori esaten zaigun bitartean, kontua da, sozialistek esaten duten bezala, Alkatea eta liberatua iaz baino % 34 gehiago kostatzen zaizkigula. Kapitulu osoa % 10 hasten da, eta II. eta IV. kapituluak, beriz, % 6 eta % 10 murritzten dira. Hau da, zerbitzu gutxiago ematen ditugu, zerbitzuak emateko gutxiago laguntzen dugu, eta gainera, garestiago ateratzen zaigu. Argiteria publikoari dagokionez, inbertsio bat egin zen, eta hala ere, ez zaio gastuari eusten, ez da gastuan igartzen. Mankomunitateari eta abarrei buruz, komentatu dira. VI. kapituluau 214.000 euroko inbertsioa aurreikusten da zinerako. Iritzi ezberdinak egongo dira. Badakigu ezker abertzalearen proiektua dela, baina, oso kuriosoa da, guk, gure programan ere sartu genuen arren, gauzak ilun jartzen hasi zirenean proiektua gelditzeko eskatu genuen eta ez zitzaigun kasurik egin; eta gero, gu gara proiektu handi zaleak eta abar. Zeren eta horren kontura ez lego ke gaizki aurreko gobernu taldeak aurreko Aldundiarekin egin zuen bezala, gobernu talde honek ere diru laguntza eskatzea egungo Aldundiari. Orduan kulturaren aldeko apustuaz berba egiten zitzaigun. Eta, gero, beste gai bat garrantzia ematen ari natzaiona, Telesko da. Badirudi aurrekontuetan Telesko anaiak pobrea dela, baina, tira, 72.000 bat euro dira. Askotan eskatu dugu Teleskorri buruzko azterketa bat egiteko, eta erantzun zaigu martxan dagoela, baina, ez da ikusten; betiko martxan goazela ikusten da eta hori dela aurrekontuek islatzen dutena. Eta beste kontu bati buruz, eskatzen dugu benetako gogoeta egiteko, zenbakitan Telesko 74.000 euro baita, Goiena 32.800 euro, eta hemen ez badira azaltzen ere bekaduna dago, eta euskara eta kultura teknikariak, komunikazioa dedikatzen direnak. Zenbat behar dugu? Guk esango genuke, beharbada, gutxiagorekin nahikoa dela eta egokia irudituko litzaigu ke hor arrazionalizatzea eta Teleskorentzako irtenbide bideragarriak aurkitzea.

## **5.- 2012. URTEKO LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.**

Pertsonal Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.** 2012rako plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda onartzea hasiera batean.

**Bigarrena:** Dokumentu biak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Hirugarrena:** Onarpena behin betikotzat jotzea inolako erreklamaziorik ez balego, erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko 15 egunez erabakia jendaurrean egon ondoren.

## **6.- OHZ KUDEATZEKO HITZARMEN BERRIA SINATZEA**

Diputatu Kontseiluak 1994ko urriaren 18an hartutako erabakiz, hainbat hitzarmen eredu onartu ziren Ondasun Higiezinen gaineko Zerga kudeatzeko hainbat eskuordetza edota laguntza maila aukeran eskaintzeko, borondatezko ordainketa aldian zein betearazpen-bidez, lurralte historikoko udalei.

Eskoriatzako Udalbatzarrak 1994ko urriaren 24an erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiari eskuordetza Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak kargapeko ondasunak finkatzen diren udal barrutiko udalari ematen dizkion zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeako ahalmenak hitzarmen ereduan (8. ERANSKINA) ezarritako baldintzetan, hau da, kudeaketa osoa eskuordetza.

Kontuan izanik gaur egun Udalak badituela borondatezko aldian zerga biltzeko beharrezko baliabideak, Udalbatzarrak honako hau onartu du aho batez:

**Lehenengoa.-** 2011ko abenduaren 31tik aurrerako indarrarekin balio gabe uztea bere garaian Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmena. Hitzarmen horrekin Foru Aldundiari eskuordetzen zitzaion Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauak Ondasun Higiezinen gaineko Zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeako Udalari ematen zizkion ahalmenak.

**Bigarrena:** Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetza-eskuordetza hitzarmena sinatzea, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako indarrarekin, Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren borondatezko aldia kudeatzeko eta zerga horren betearazpen-bidearen kudeaketa eskuordetze (Foru Aldundiaren eta udalen arteko hitzarmenak onartzen dituen iragarkiaren II eranskin gisa argitaratutako testua)

## **7.- UDALAREN ORDEZKARIA ETA HORREN ORDEZKOIA IZENDATZEA CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIAN-GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXAREN BATZAR OROKORRERAKO.**

Udalaren ordezkaritzari buruzko Kutxako estatutuen eta erregelamenduaren arabera, Udalbatzarrak, Urrutia jaunak emandako aurkako botoarekin eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde emandako botoekin, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** TALDEA OSATZEA ondorengo udalekin beraiek ere horrela erabakitzentz baldin badute: Segura-Berastegi, Deba, Asteasu, Zestoa, Lazkao, Alegi, Legazpi, Zumaia, Tolosa eta Getaria.

**Bigarrena:** Erabaki hau KUTXAri jakinaraztea, eta horietako udal bakoitzak hartu beharreko erabakiak hartu ondoren, Batzar Nagusirako ordezkaria(k) izendatzea.

#### **8.- MOZIOA: “1512-2012: NAFARROAREN KONKISTAK 500 URTE”.**

Hitza eman ondoren, Urzelai andreak mozioaren xedapen zatia irakurri du. Hona hemen osorik:

#### **1512-2012: Nafarroaren konkista**

*Debagoineko 1512-2012 Nafarroa Bizirik lantaldeak hurrengo mozioa aurkeztu nahi dio ESKORIATZAKO UDALBATZARI, eztabaидatu eta adostu dezan.*

#### **AZALPENA: 512-2012 Nafarroaren konkista**

*Gertu dago armada gaztelar eta aragoarrek Nafarroako Erreinua konkistatu zuteneko bostehungarren urtemuga. Spainia zabalkunde garaia bizitzen ari zen lurraldeari zegokiola. 1512ko uztail hartan, haien Armadak Nafarroaren bihotza inbaditu zuten, mende batzuk lehenago bere mendebaldeko lurraldeekin egin zuten bezala. Gertakari horien ondorioz, Herri oso batek galduko zuen bere subiranotasuna.*

*Nafarroa herri askea zen, erregea, gortea kontseilua eta armada zituen, baita Europan enbaxadoreak ere. Gainera, bere gortea garaiko kulturaren gune garrantzitsua izan zen. Herri txikia, baina Pirinioetako bi aldeetan estrategikoki kokatua bera, Spainia (orduko Gaztela eta Aragoi) eta Frantziako bizilagunek berau desio zuten. Bizilagun hauek agramondar eta beaumondarren arteko borrokak sustatu zituzten eta ondorioz, herriak lur joarazi zituzten.*

*Hain justu nafar erregeek gerra zibil horiei bukaera eman zietenean, Fernando Katolikoak, 1476an jada nafar Erreinuarekiko bere eskubide-asmo sendoa erakutsia baitzen, inbasioa agindu zuen.*

*Espainiar armada, Albako Dukearen agintean, su eta gar sartu zen eta Luis Correak idatzitako konkistaren gaineko historian Villalva Koronelaren hitzetan jarria da armada inbaditzaleak erabili zuen basakeria: “herriak erre ziren, ehunka nafarrek alde egin zuen, emakumeak bortxatu zituzten, ondasunak konfiskatu zituzten, erbesteratzeak izan ziren, exekuzioak...”.*

*Gazteluak suntsitu ziren, nafarrentzat bakarrik izan zitezkeen karguetan espainolak sartu ziren. Herriek okupazio-armadaren gastuak ordaintzen zituzten “gerra gastuak” bailiran. Okupazio militarrak 100 urte iraun zuen, eta gaur arte luzatu da.*

*Hala ere, mende luze hartan gaztelarren kontrako konspirazioak ere izan ziren, eta hauei erregeordeek “euren lurraren aurkako erreboltariak” deitzen zieten; errege orde hauek espainiar Gorteari txostenak bidaltzen zizkioten “nafarren frantses egiteko nahiaz” eta “hala*

*egiten ez badira armadak galarazten duelako da". Felipe II.ak berak gotorlekuak eraikitzeko agindua eman zuen (Iruñeko harresi eta gotorlekua) "nafarrak eusteko" eta erresistentzia izan zela eta, Biltzaileek herriz herri ibili ziren "jende alferra, iheslaria eta estaltzailea".*

*Honela, konkista eta ondorengo garaia gogorra izan zen, kezka handikoa, eta ez baketsua. Honek kontraesanean jartzen du "berdinaren arteko hitzarmena" izan zela dioen bertsioa, "bat egite zoriontsua" asmo txarreko interpretazio historikoa da, azken batean, egungo Nafarroaren egoera legezkotzat eman nahi baitu.*

*Okupazioari erresistentzia etengabekoa izan zen; egitandi gogoangarriak izan zirelarik, Amairu defendatu zutenena kasu. Honez gain, geroztik eta egun arte herri honen estatusaren hondaketa-prozesuak aitzina segitu du, probintzia bihurtzeraino eta egun, Autonomia Erkidego, ia-ia Nafarroa izena desagerraraziz.*

*Gaur, Nafarroa Espainiara libreki bildu zela dioen faltsukeriaren aitzinean, 2012an Espainia Nafarroa Garaia konkistatzen hasi zela 500 urte beteko direla gogora ekarri nahi dugu, data hura giltzarri izan zen gure estatua indarrez hondorazteko. 1512f-2012 Nafarroa Bizirik ekimeneko emakumezkoak, gizonzekoak eta taldeok gure mendeetako ibilaldia erakutsi nahi dugu eta kendu ziguten hura berreskuratzeko eskubidea dugula garbi adierazi; burujabetza galdu izana gure herriarentzat galbidea izan da.*

*Gauzak honela, 1512ko konkista XVI. mendean oraino askeak ziren nafar lurraldeen inbasio bortitzaren emaitza izan zela, eta, ondorioz, gure herria Espainiaren eta Frantziaren menpe gelditu zen, nafar jendearen borondatearen aurka.*

*Historiak independente izan ginela erakusten digu, eta izateari utzi geniola, ez gure arbasoen nahiaz, baizik eta espainiar eta frantses nahikeria dela eta. Eta, hain zuzen ere, gure interes nagusia ez baita iraganean, orainean eta geroan baino, memoria historikoa berreskuratu nahi dugu askatasunerantz pausoa emateko eta gure eskubideak defendatzeko.*

*Ziur gara nafar gehienek ez dutela orain bost mende gertatua ezagutzen. Ezagutuko balute, egungo errealtitatearekiko beste jokaera bat biziko genuke.*

*1512 hartatik ia bostehun urte joan dira, baina Nafarroa bizirik da. Obanosko Infantzoien aldarria gaurkoa ere bada, indarrean da:*

**PRO LIBERTATE PATRIA, GENS LIBERA STATE**

**1512-2012 Nafarroa bizirik!**

**MOZIOA:**

*Hau guztia kontutan izanda, honako adierazpen hau aurkezten dugu, Eskoriatzako Udaleko Osoko Bilkura honetara, eztabaidatua eta onartua izan dadin:*

1. *Eskoriatzako Udalak duela 500 urte Nafarroaren, hau da, gure Estatuaren independentzia defendatu zutenei agur eta ohore egin nahi die. Hortaz, duela bortz mende Tuteran, Lizarran, Burgin, Donibane Garazin, Garruzen, Noainen eta bertze anitz lekutan gure libertatearen sugarra babesteko borrokatu zirenak omendu nahi ditu, eta euskaldun guztiak Nafarroa bizirik dela aldarrikatzen du.*
2. *Udal honek bat egiten du "1512-2012" Agiriarekin zein 1512ko konkistaren bosgarren mendeurrenaren gogorarazteko abiatuko diren ekimenekin. Bere ahalen arabera, laguntza eskainiko die.*

*Eskoriatzan, 2012ko urtarrilaren 11n*

Mozioa irakurrita eta zenbait bozeramalek hitza hartu ondoren, mozioa bozkatu da eta Udalbatzarrak onartu du honako emaitza honekin: 2 boto aurka (Cantero jauna eta Merino jauna), 2 abstentzio (Madinabeitia jauna eta Akizu jauna) eta gainerako udalbatzarkideen aldeko botaoa

Urrutia jaunaren boto azalpena (2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran horrela egitea eskuat zuelako egiten da):

Guk mozioaren alde egingo dugu. Bertan planteatzen dena oso orokorra bada ere, uste dugu kontuan hartzekoak direla gure historia jakitera emateko azken aldi honetako ekimenak. Herri bezala beti atera gara galtzaile, guk inoiz ez dugulako gure historia kontatzeko aukerarik izan. Eta hori gogorarazteko 2012. urtea aprobetxatzea aukera polita izan daitekeela uste dugu, eta are gehiago kontuan izanik Eskoriatzatik ere ekarpentz bat egin daitekeela: testuinguru horretan Atxorrotzek edo bertan egon zen gazteluak izan zuen protagonismoa. Guretzat historia garrantzitsua da, askotan, nora joan nahi dugun jakiteko non gauden jakin behar dugulako, eta non gauden jakiteko nondik gatozen jakin behar dugu. Hala ere, ñabardura bat egin nahiko nuke. Historiak oso garrantzitsua da, baina, politikan erabiltzeak arrisku handia du. Historial alderdi argiak eta alderdi ilunak ditu, gustukoak izan ditzakegunak edo nahigabetu gaitzaketenak, eta askotan, politikan erabiltzen denean, alderdi bat besterik ez da erabiltzen. Hala ere, eta berriz diot, benetan kontuan hartzekoak dira gure historia berreskuratzeko saio guztiak. Eta zati bat kontatzen denean, ba, azkenean manipulatu egiten da. Eta, orain arte, 500 urtez, 1000 urtez edo ez dakit zenbat urte gehiagotan, beharbada alde batek manipulatu gaitu. Eta manipulazio horretan ez erortzeko kontu handia izan beharko genuke historia politikan erabiltzen dugunean. Adibide bat jartzearren, Nafarroako bandera aipatu da, kontuz! Nafarroako banderak daramatzan kate horiek ez gaituzte euskaldun guztiak ordezkatzen, eta Errekonistako bataillarekin zerikusia dute, "Navas de Tolosako" bataillarekin, hemen Tolosan gertatu ez zena, baizik eta Jaenen. Eta kontuz zenbait sinbolorekin. Eta berriz diot: historian alderdi argiak eta alderdi ilunak daude. Eta erreferentzia bat emango dizuet: orain dela 2 urte argitaratu zen Rosa Ayerberen liburu bat. Eta, bide batez, esan udal honek ez zuela lagundi nahi izan, dirua egon zen Malveren liburuarentzako, baina, ez harentzak; dirudienez, Rosa Ayerbe ez zen batzuen fronte kulturalekoa. Eta uste dut aukera polita izango zela -lehen Alkateak aitortu duenez, zineko proiektua gobernu talde honen eta ezker abertzalearen proiektu izarra da- eta aukera galdu zela, baina, beharbada, berreskuratu egin daitekeela: zineari buruz egin zen parte-hartze prozesuan proposamen bat egon zen eraikin berriari "Juana de Albret" izena emateko. Hor aukera oso ona egon zen, baina, beharbada, orduan orduko sozialistek esaten zutena bultzatzeko beharra egon zen, eta horregatik "Zaldibar" jarri zitzaion. Baina, ez lego ke txarto "Juana de Albret" jartzea. Kontuan izan gauza bat: lehengoek

ez zuten kontzientzia nazionalik, ez zuten kontzientzia nazionalez pentsatzen, eta lehengo kontuak egungo irizpideekin epaitzea ez da oso zuzena. Hemen, kontzientzia nazionala sortu zuena askok madarikatutako bat da, zehazki, Sabino Arana Goiri, eta lema batekin: "Euskadi da euskaldunon aberria". Abertzale izateko eta abertzale bezala aritzeko ez dago historiaren beharrik, ez dago zertain historia aldatu edo manipulatu, baina, bai, jakin. Abertzalesunak azken finean ABC bat du, hau: herri bat gara, nazio bat gara eta herria eta nazioa garen lehenengo momentutik gure subiranotasunerako eskubidea dugu. Eta hori gainditzeko, ezker abertzalea hainbat saiakera egiten ari da "fronte kulturala" deitutako horren bidez, esanez zuzenagoa dela "Xaho" lehenagokoa zelako, ez dela Euskadi esan behar, Euskal Herria esan behar dela, eta orain, ba, Nafarroa... eta bueno, azkenean dena bat dela. Azkenean Euskadi nazio kulturala dena nazio politikoa bihurtzea da. Eta niri, bereziki, grazia egin didana izan da orain Obanoseko Infantzen lema ateratzea: "Herriaren askatasunerako, jendea libre izaten jarraitu" (PRO LIBERTATE PATRIA, GENS LIBERA STATE). Orain, asko eta asko kontakizun bila ari dira, eta hori izan daiteke kontakizun bat bilatzeko modua, baina, gogoratu historian gure atzetik etorriko direnentzako ez dela gehiegi egin euskaldun guztiok libre izan gaitezen, ez bakarrik kolektiboki, ezta alderdi personal eta indibidualetik ere. Horregatik, eta hemendik aurrera Euskadi euskaldunon aberria izatea gura badugu, esan dudan abertzalesunaren ABC horretan sakondu gura bada, herriaren askatasuna bila gura bada pertsona bakoitzaren askatasun indibidualaren bidez, guk eskuak zabalik eta garbi ditugu elkarlanerako; baina, orain arte egin duzuen bezala monopolizatu gura baduzue, zeuek egin beharko duzue zuen bidea.

#### **9.- ETXE UTZARAZPENEN AURKAKO MOZIOA.**

Hitza eman ondoren, Merino jaunak mozioaren xedapen zatia irakurri du. Hona hemen osorik:

#### **ETXE UTZARAZPENEI BURUZKO MOZIOA**

2008tik, krisiaren eztandarekin eta langabezia handitzearekin batera, ehun milaka familia muturreko egoera batera iritsi dira, beraien oinarritzko beharrak bete ezinik. Administrazioak, herritarren zerbitzura egon behar dena, arazo horiek konpondu daitezela bermatu behar du. Botere Judzialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2011ko lehenengo 9 hilabetetan 1.591 etxetik botatze edo utzarazpen izan dira Euskadin, eta 2010. urtean 1.963 izan ziren. Horrek esan nahi du basketxeek egunero Euskadiko 5 familiei kentzen dietela etxebizitza.

Horrelakoak gertatzen direnean, familiek ez dute bakarrik etxea galtzen, bizitza osorako finantza-zigorrari ere aurre egin beharrean izaten dira: basketxeak demanda jartzen du eta etxea enkantean jartzearekin amaituko den hipotekaren exekuzio prozesuari hasiera ematen zaio. Enkantean eman gabe gelditzen baldin bada (egungo krisi egoeran % 90an baino gehiagotan gertatzen dena), indarrean dagoen legediarekin, basketxeak etxebizitza eskuratzentzu du tasazio balioaren % 60agatik eta gainerako zorra gehi interesak eta epaiketa-kostuak ordaintzea erreklamatzen jarraitzen die kaudimengabezian daudenei, soldatak, kontu korronteak eta abar bahituz eta baita abal-emaileei bahituz ere. Hau da, etxebizitza galtzeaz gain, milaka familiek bizi guztirako finantza-zigorrari, eta horrek dakarren gizarte-bazterketari eta ezkutuko ekonomiari, aurre egin behar diote, .

Banketxeei etxebizitzak tasazio balioaren % 60agatik –orain dela urtebetera arte % 50a zen-eskuratzentzu lagatzen dien legedi hori, berezi izan eta gure inguruko beste herrialde batuetako legeetan antzekorik ez izateaz gain, ezezaguna zen familientzat hipoteka-kontratua sinatu zutenean. Horri gehitu behar zaio hipoteka gehienak saltzeko erabilitako publizitate

engainagarria, higiezinen burbuila aldian tasazioek izan zuten gehiegizko balorazioa eta kontratuetan erabilitako hizkuntza ulergaitza, orain ikusi denez, kasu askotan mota askotako abusuzko baldintzak ezkutatzen zituena, esaterako, gutxieneko interes baldintzak. Onartezintzat eta erabat bidegabetzat jotzen dugu zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batean krisiaren ondorio guztiak hipoteka-kontratuaren alde ahularentzat izatea, eta, aldiz, egungo krisiaren arduradun nagusi diren banketxeek likidezia arazoak dituztenean zergetatik ateratako milioiak jasotzea laguntza bezala inolako erantzukizunik hartu behar izan gabe, urtean milaka milioiko irabaziak lortzen jarraitzen duten bitartean.

Egungo egoerak **Ekonomia, Gizarte eta Kulturako Eskubideen Nazioarteko Ituneko 11. artikulua** urratzen du. Artikulu horrek dioenez, estatuak ahal duen guztia egin behar du arrazoi ekonomikoengatik diren kaleratzeak galarazteko, eta horrelakorik galarazi ezean, prozesuberme guztiak bete daitezen zaindu behar du eta familiei ostattu duin eta egokia eman. Espainiako gobernuak itun hori sinatu eta berretsi zuen, eta beraz, errespetatzera derrigortuta dago.

Hemen esandako guztia estatuaren eskumeneko araudiaren menpe dago, baina, horren ondorio larriak udaletan ikusten dira, udaletara jotzen baitute, nagusiki, kaltetutako pertsona eta familiek laguntza eske. Gainera, udalek badute ordezkaritza banketxe batzuetan, aurrezki kutxetan, Euskadin baditzute ordezkariak pribatizatu berri diren hiru euskal kutxetako akziodunen batzarretan. Ordezkari horiek gai horri buruz udalek duten iritziaren berri eman beharko lukete.

Pertsona eta talde asko ari dira eskatzen mobilizazio eta bestelako ekintza bidez egoera horri amaiera emateko, eta kasu askotan utzarazpenak atzeratzea eta kaltetutakoekin utzarazpenari irtenbide alternatiboa negoziatzeko konpromisoa lortzen ari dira banketxeekin. Beharrezko da ere erakundeen implikazioa, beraiek baitute abusu hori ekarri duen araudia aldatzeko ahalmena.

#### **Horregatik guztiagatik, Eskoriatzako Ezkerra udal taldeak ondorengo erabakiak hartzea proposatzen dio Udalbatzarrari:**

1. Espainiako Gobernuari eta Gorteei hipoteken erregulazioaren aldaketa presaz onartzeko eskatzea, eta aldaketotan sinatutako hipoteken ordain moduan emateko figura aplikatzea, horrela, ohiko etxebizitzaren kasuan, banketxeak hipoteka exekutatzen baldin badu eta etxebizitza eskuratu, zor osoa (nagusia gehi interesak eta epaiketa-kostuak) kitatuta gelditzeko, Europako Batasuneko beste herrialde batzuetan edo Estatu Batuetan gertatzen den bezala.
2. Estatuko Gobernuari bat-bateko eta nahigabeko kaudimengabezia egoeran dauden familien utzarazpenak geldiarazteko luzamendua onartzeko eskatzea. Eta, orain arte izandako utzarazpenentzako premiazko neurriak berehala onartzeko eskatzea, utzarazpen horien ondorioz banketxeak pilatzen ari diren milaka etxebizitza huts berehala alokairu sozialean jar daitezen kaleratutako eta baliabiderik gabeko familien esku.
3. Agindua ematea Kutxa Bankeko akziodunen batzar nagusietako udal ordezkariei kaltetutako familiekin alternatibak negoziatuz -luzamendua edo ordezko alokairuak bezalakoak- etxebizitza nagusiaren utzarazpenak ekiditea helburu izango duen plan bat aplikatzeko eskatzea batzar horietan.
4. Gizarte taldeetatik arazo hori salatzeko egiten ari diren mobilizazioekin bat egitea eta kaltetutako pertsonei babesia ematea.

5. Erabaki hauen berri ematea Estatuko Gobernuari, Kongresuko eta Senatuko talde parlamentarioei, Eusko Jaurlaritzako lehendakariari eta Hipotekak Kalte Egindakoentzako EAEko Plataformari.

Cantero jaunak horrela eskatuta, xedapen zatia puntuz puntu bozkatu da. Emaitza honako hau izan da:

Lehenengoa.- Lehenengo puntuak onartu eginda emaitza honekin: boto bat aurka (Cantero jauna), 2 abstentzio (Madinabeitia jauna eta Akizu jauna), eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoak.

Bigarrena: Bigarren puntuak onartu eginda emaitza honekin: 3 abstentzio (Cantero jauna, Madinabeitia jauna eta Akizu jauna), eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoak.

Hirugarrena: Hirugarren, laugarren eta bosgarren puntuak onartu egin dira emaitza honekin: 2 abstentzio (Madinabeitia jauna eta Akizu jauna), eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoak.

## **10.- GALDE-ESKEAK.**

Urrutia jaunak ondorengo eskaerak egin ditu (2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran horrela egitea eskatu zuelako jasotzen dira):

1.- Kale nagusia asfaltatzea.

Alkateak erantzun du lehentasuna badu ere, zaila izango dela egitea baliabide ekonomikorik ez dagoelako.

2.- Erreka garbitu dadila. Uste du ez dagoela batere ondo elizaren eta zubi berriaren arteko tarteak, eta gogorarazi du bere garaian uholdeak jasan ditzakeen zonen planari buruzko informazioa eskatu zuela eta oraindik ez duela jaso.

Alkateak erantzun dio eskatu zaiola URARI erreka garbitzeko, eta egingo dutela erantzun dutela, baina, oraindik ez dutela ezer egin. Eskatutako planari dagokionez, jakinarazi dio bere asmoa hurrengo osoko bilkuran ematea zela eta CD batean ekarri zuela plana, baina, bera (Urrutia jauna) etorri ez zenez, ezin izan ziola eman. Jakinarazi dio CD hori bere bulegoan duela eta nahi duenean bila joateko eta emango diola.

3.- Mankomunitateko akta guztiak jasotzea.

Beste nork jaso nahi dituen galdetuta, bakarrik Cantero jaunak eskatu ditu. Alkateak idazkariari emango dizkio akta horiek, idazkariak bi zinegotzi horiei banatzeko.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura arratsaldeko zortziak eta berrogeita bost minututan. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

2012-01-19an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 19-01-2012

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Leire Urcelay Letona  
Jose Angel Petralanda Gil  
Itziar Martínez Iregui  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Iker Akizu Olabe  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko urtarrilaren 19an, arratsaldeko seiak eta erditan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día diecinueve de enero de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día..

## **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas el día 15-12-2011 y 27-12-2012.

Con motivo de la aprobación de las actas se adoptan los siguientes criterios:

- Previa solicitud del Sr. Merino, por unanimidad se acuerda que todas las mociones sean transcritas en el acta en toda su integridad, no sólo la parte dispositiva.
- Por petición expresa del Sr. Urrutia, que sus intervenciones se recojan en ambas lenguas y no sólo en aquella que utiliza en ese momento.

## **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA**

### **2.1.- Información sobre acuerdos adoptados.**

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 13 de enero de 2012 haciendo entrega de una copia del extracto de las mismas.

### **2.2.- Información sobre asuntos varios.**

- ESKOHITZA: reuniones informativas. Para dar a conocer el resultado de todo el proceso participativo ESKO HITZA , los próximos día 26 y 31 de enero, a las 18:30 y 19:30 horas respectivamente, se celebrarán sendas reuniones. El Alcalde invita a todos los presentes, así como a todos los vecinos, a que asistan a las mismas.

## **3.- RATIFICACIÓN SOBRE INCLUSIÓN DE ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA.**

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión del siguiente asunto dentro del orden del día:

- *DESIGNACIÓN DE REPRESENTANTE TITULAR Y SUPLENTE DEL AYUNTAMIENTO PARA LA ASAMBLEA GENERAL DE LA CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIÁN-GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA.*

## **4.- APROBACIÓN DEL PRESUPUESTO 2012 (INFORME SOBRE ESTABILIDAD)**

Con fecha 11 de enero de 2012 la Comisión Informativa de Hacienda dictaminó favorablemente el Proyecto de Presupuestos elaborado por la Alcaldía.

El Alcalde explica los criterios tenidos en cuenta a la hora de elaborar la propuesta, así como las previsiones que por capítulos contiene la misma.

Informados todos los presentes intervienen los portavoces de los grupos municipales.

